



ETXEZARRETA EROSI ETA INGURUMEN HOBEKUNTZARA BIDERATZEKO PROPOSAMENA

Etxezarretako lursaila ingurumen ikuspegitik baloratzeko orduan, atentzioa deitzen duen lehen ezaugarria bere azalera handia da: **83 Ha**. Gipuzkoan, batz besteko lursailen azalera askoz txikiagoa izaten da; lurraren jabegoa oso atomizatuta dago eta hau arazo nabarmena izaten da ingurumen hobekuntzarako proiektu eraginkorrak martxan jartzeko orduan. Etxezarreta beraz, beste balorazio batzuetan sartu aurretik, lursail **oso interesgarria** da ingurumenaren aldeko proiektuak bertan garatzeko.

LURSAILA

Etxezarreta Arrasateko ekialdean kokatzen da, AP-1 autobidearen sarrera ingurutik hasi eta Kortapoto deritzon mendi magal guztia hartuz San Prudentzioraino iristen da, muga eginez, beraz, Oñati eta Bergarako udalerriekin. Poligono 03 eta 001 partzela zenbakiekin ezagutzen da eta 83,3 Ha azalera dauka.

Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrekoan, (HAPO) lurzoru hiritarezinaren eremu banaketan, babes bereziko eremu bezala dago jasota (2.8.Etxezarreta) lursailaren beheko aldea, erreka ertza eta bertako basoa dagoen tokia.

Gainontzekoa basogintzarako lurzorua da eta insignis pinuaren landaketa dago bertan. Pinudiak hartzen du gaur egun mendiaren zati handiena, 65Ha, hain zuzen ere. Pinu hauek 1976an landatutakoak dira eta zuraren aprobetxamendurako zuhaitz mozketak egiten hasiak daude.

ONDARE HISTORIKOA

Etxezarretaren historia aberatsak, merezi duen lekua beharko luke Arrasateko historian. Lehen erreferentziak 1.773koak dira, sagasti zabal batek lursail guzti hau hartzen zuenekoak; inguruko baserrikoek bertan lan egiten zuten sagarrak batzen, gero sagardoa egiteko bertako dolaretxean.

Hala ere, XIX.mende amaierakoak eta XX.-aren hasierakoak dira istorio interesgarrienak. Hona hemen zertzeladaren batzuk :

Severina Etxezarreta eta Rafael Ariza Espejoren ezkontza zela eta "Sagasti-Echea" izenarekin ezagutzera eman zen etxaldea. Rafael Sevillar otorrinolaringolo eta librepentsalari famatua zen. Ezkontza hartatik, Madrilen, Rafael eta Severina seme-alabak jaio ziren, gaur egun lorategian lurperatuta daudenak, alegia.

Rafael eta Severina gazteek herentzian jaso zuten Etxezarreta eta 1902an Arrasatera bizitzera etorri ziren. Goi kulturako gizon aparta genuen Rafael Ariza eta oso ezaguna izan zen Arrasaten. Felix Arano maisuaren lagun-mina zen eta Biteriren jarraitzaile sutsua. Bere liburutegian gai eta hizkuntza askotako milaka liburu gordetzen zituen. Pio Baroja eta Gregorio Marañón bezalako idazle eta jakintsuak sarri joan ohi ziren Etxezarretako liburutegira. Diotenez, Pio Barojak "El cura de Monleón" idatzi zuen bertan. Bide, portu eta kanalen ingienari zen eta Etxezarreta erditik pasatu behar zen trenbidea erreka baztarrera desbideratzea lortu zuen horretarako planoak zuzendu eta egokituta. Bistan da, baita ere, Botanika bere pasiotako bat zela.

Sagasti-Etxea garai hartan Euskal Herriko eta Europako baserri aurrerakoienetakoa zen teknologikoki; bai basogintzan, bai abeltzaintzan eta baita hegaztien hazkuntzan ere. Rafaelek gogor heldu zion sagardo ekoizpenari eta bereganatu zituen teoria eta teknikari esker Arrasatetik kanpo saltzea lortu zuen. Atal berezia beharko luke hil aurretik burutu zuen korta miresgarriaren proiektua.

1934ean Rafael Ariza hiltzen da eta orduan hasten da galtzen arlo askotako eredia izandako Sagasti-Etxeko ondarea. Gaur egun etxalde dotorea izan zenaren arrastoak besterik ez dira ageri eta lorategi botanikoa aberasten duten hainbat zuhaitz daude inguruan.

ONDARE NATURALA

1. *Europar Batasunaren intereseko bi habitat mota aurkitzen dira: HALTZADIA eta TXILARDIA.*

Haltzadia ibaiari lotutako baso mota da, Deba arroan gunee gutxitan kontserbatzen dena. Etxezarretakoa kontserbazio egoera onean dago (eskumako ibai ertzean), Deba arroko haltzadi interesgarrienetakoa da. Bertan aurkitu da landare bioaniztasun mailarik handiena Arrasateko udalerrinari dagokionez. Ibai ekosistema hobetzen jarraitzeko –legeak hala agintzen du- ezinbestekoa da haltzadia kontserbatzea eta bere egoera hobetzea; eta horretarako ibai bazterra lurzoru publikoa izatea garrantzitsua da.

Txilardia ere babestu beharreko habitat mota da Europar Batasunaren arabera. Tentsio altuko linearen azpian gelditzen den azalera horretan dago.

2. *Lurralde mailako interesa duen HARIZTIA.*

Gipuzkoa barnealdean ia desagertzeraino murriztu dira bertako baso tipikoenak, hariztiak, eta Arrasaten ere bai. Gure herrian erabat zatikatuak daude han eta hemen biziraun duten harizti orban txikiak. Alegia, lekua kendu diegu azpiegiturak eraikitzeko, hirigintzarako, edota egur ustiapenerako. Zorionez, Etxezarretan mantendu da bertako basoaren

testigu bikaina, ez delako egon gizakiaren eskuhartzerik hamarkada batzuetan eta hori herriak duen altxor bat da.

3. *XIX.mende bukaerako lorategi botanikoa*

Bere garaian Rafael Arizak eraiki zuen lorategi botanikoa garrantzi handikoa izan zen eta gaur egungo osagai begetala ikusgarria da benetan; zuhaitz espezie konposizioa, hauen adina eta tamainak.

Garai hartako paisaiagintza estiloa jarraitua, lorategi ederra sortu zuten erreka bazterrean eta aniztasun handiko arbola exotikoak landatu zituzten: sekuoia erraldoiak, atlasko zedroak, Lawsoneko nekostak, araukariak, etab. Askok 100 urte baino gehiago dituzte. Tamalez hauetako ale batzuk galdu egin dira.

Etxetik gertuago, merienda egiteko mahaia jartzen zen lekuan garapen handiko zuhaitz asko ikusten dira: ereinotzak, makal kanadarrak, gorostiak, magnolioak, haginak, izeiak, jupiter zuhaitza, etab.

ETXEZARRETA EROSTEAREN ONURAK

Aukera aparta dauka Arrasateko Udalak ingurune paregabe hau bere egiteko. Arrazoi nagusiak hauek izan daitezke; bertako ondare historikoa aitortzea eta balorean jartzea, ingurumena babestea eta hobetzea eta herriari aisialdirako kalitatezko espazioa eskaintzea.

Baina horretaz gain, proiektu honek ekarpen handia egingo lioke:

1. EAEko azpiegitura berdeari
2. Ekosistemen zerbitzuei
3. Aisialdi gune aberatsen eskeintzari
4. Mendi ibilbideak egiteko aukerari

● ***EAEko azpiegitura berdea***

Azpiegitura Berdea: Europar Batasunaren arabera kalitate handiko zona natural eta seminaturalen sarea da, beste ingurumen elementuak ere badituena, estrategikoki planifikatua, diseinatua eta kudeatua, biodibertsitatea babesteko zein beste zerbitzu ekosistemiko anitz –karbono biltegitratzea, ura, aisialdia naturan, elikagaien ekoizpena... - eskaintzeko. Europar Batasunak azpiegitura berdea diseinatzeraz eta garatzeraz deitu du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren azpiegitura berdean elementu nagusietakoa da Korridore Ekologikoen Sarea. **Etxezarreta bete betean kokatzen da** sare horretan, **Izarraitz/Aizkorri-Aratz/Urkiola korridorean** hain zuzen ere. Gainera, korridore hori funtzionala izateko gune garrantzitsua da, "*hiri lurrekin interakzio alde kritiko*" bezala sailkatutako gunean dago.

EAE-ko Korridore Ekologikoen sarearen funtzionaltasunerako ekarpen garrantzitsua izango litzateke Etxezarreta. "**BASO**" kategoria duen lurra da, korridore ekologikoan baldintza gainjarria dauka; horrek suposatzen du basoa izaten jarraitu behar dauela. Publiko bihurtzean, **Etxezarreta harizti ederra bilakatuko genuke.**

- ***Ekosistemen zerbitzuak***

Gutxitan emango da EAEn 83Ha-ko natura-berreskuratze proiektu bat martxan jartzeko aukera. Gaur egun koniferaz estalitako 65Ha-k baso hostogalkor heldua lortzera bideratuko balira, EAE-ko Korridore ekologikoen sareko erreferente bilakatuko ginateke. Basoa berreskuratuko genuke eta honekin batera basoak eskaintzen dituen zerbitzuak: karbono biltegitzea, lurra finkatzea, ura xurgatzea, flora eta fauna suspertzea eta gordetzea etab.

- ***Aisialdi gune aberatsa***

Arrasatearrak eremu oso urbanizatuan bizi gara, urbanizazio dentsuetan eta industrialdeetatik nahiko gertu. Gainera, askok naturarekin kontaktua galdu dugu baina behar beharrezkoa zaigu bizi kalitate ona bermatzeko, naturarekin hartu emana izatea. Horretarako, azalatu behar den altxorra da Etxezarreta: bere lorategi ederrarekin, ibaiari lotutako aisialdi gunearekin eta baso zoragarriarekin. Inguruaz gozatuz, kirola egiteko, lagun artean egoteko, haurrekin jolasteko, ibilaldiak egiteko, irakurtzeko... Eta hau guztia **herritik irten barik.**

Jende askok erabiltzen duen **bidegorria** bertatik igarotzen da eta jendea bertara erakartzea ez luke behar esfortzu handirik. Gogoratu bidegorria "**Vasco-Navarro**" trenaren plataforma erabiltzen duela, **gure bailara Lizarrarekin lotzen duena.**

- ***Mendi ibilbideak***

Herri bideak "**Herria**" egiteko bide direla konbentziturik gaude. Horregatik Etxezarretakin zerikusia dutenak gerizpetik aterako genituzke. Horrela Etxezarretak gordetzen duen ondare natural, historiko eta kultural paregabea azalera dugu herritarrendako espazio berriak irabaziz. Gure gazteen hezkuntzarako bereziki interesgarriak izango direnak gainera.

LURSAILAREN ONDARE NATURALAREN BANAKETA ERANSTEN DEN PLANOAN AGERTZEN DA.

KUDEATZEKO PROPOSAMENA

Kudeatzeko modu bat, Udalak horrela nahiko balu, Udalez kanpokoia izan daiteke. Horretarako zaintza erakunde batekin borondatezko akordio bat sinatuko litzateke, beti ere, bioaniztasunaren kontserbazioa helburu duen erakunde batekin.

Lur-zaintzak borondatezko akordio baten forma hartzen du. Zaintza-erakundeen eta lurren jabe edo erabiltzaileen artekoa. Edota zaintza-erakundeen eta baliabide naturalen aprobetxamendu edo erabilera-eskubideen titularren artekoa. Horretarako honako hauek ezarri behar dira: indarrean izango den aldia; natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko egingo diren jarduerak; jarraipen eta aholku-mekanismoak; laguntza tekniko eta finantziarioa.

Erakunde horrek zainduko lukeen eremua Udalarekin adostutakoa izango litzateke, hau da, ez dauka zertan lursailaren azalera guztia izan, gutxiago ere izan daiteke. Adibidez:

1. Lursail guztia lurralde zaintzarako erakundeak kudeatzea
2. Basoa bakarrik lurralde zaintzarako erakundeak kudeatzea eta Udalak lorategia eta etxe ingurua

Lur-zaintzarako erakunde horrek herriko beste eragile batzuekin landuko lituzke leku horretan egingo daitezkeen ekintza konkrituak.

Horrela, lursailaren eremu ezberdinen ezaugarriak kontuan hartuko lirateke eta helburuen arabera zonifikazioa egingo litzateke, esate baterako, kontserbaziorako eremua, erregenerazio eremua eta aisialdirako eremua definituz.

Lurralde zaintzarako erakundeak lursail eremuan berreskuratze lanak aurrera eramateko dirulaguntza lerroetaz baliatuko litzateke, hauetaz, adibidez:

- [Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.](#)

Lur-zaintzailtzak akordioetan diren ondare naturala aktiboki kontserbatzeko ekintzetarako diru-laguntzak, 2016.

Xedea: Diru-laguntza eman nahi zaie ondare naturala kontserbatzea helburu duten jardunei, eta, horretarako, diru-laguntzak ematen dira aktiboki kontserbatzeko jarduerak burutzeko, baldin eta jarduera horiek lur-zaintzako akordioen barnean hartuta badaude.

Dena den, proiektuen arabera, Arrasateko Udalak inbertsioak egiteko aukera izango luke.

Udalarentzat dirulaguntza aukerak

Jakin ezazue babes ekonomikoa lortzeko badaudela dirulaguntza lerro batzuk, eskatzen duten Udalei ematen direnak. Adibidez:

● **Gipuzkoako Foru Aldundia**

Basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntza lerroan, natura babesteko eta bertako landaredia sustatzeko helburuarekin emandako laguntza da interesgarriena, seguraski. Izan ere, sartutako espezieak hazkunde ertaineko bertakoak direnean (eta Etxezarretan hariztia birsortu beharko litzatekeenez, horrela izango litzateke) diru laguntza % 90ekoa izan daiteke

Bestalde, Ingurumen Departamentuak Tokiko Agenda 21eko ekintza planak garatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta tokiko eta eskualdeko merkataritza elkarteei ematen dizkien diru laguntzen azken deialdietan, lehentasuna izan dute, besteak beste, tokiko eta eskualdeko inguruak eta habitatak lehengoratzeko jarduketek, eta horien barruan eremu degradatuen ingurumena eta paisaia lehengoratzekoek, habitat naturalen kontserbazio egoera hobetzeko jarduketek, espezie exotiko inbaditzaileak erazteko jarduketek eta tokiko eta eskualdeko biodibertsitateari buruzko azterketek.

● **Berringurumena, Eusko Jaurlaritza**

Funtsezko interesa duten esparruetan proiektu berritzaileak garatzen laguntzen du, betiere estrategia eta programa hauekin bat etorritik: Garapen Jasangarriaren EAEko 2020rako Ingurumen Estrategia, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa, EAEko Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2020rako plana, Klima Aldaketaren 2050erako Euskal Estrategia eta garatzeko bidean dauden Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren plangintzak, Biodibertsitate Estrategia, esaterako.

- Klima-aldaketa arintzea eta horretan egokitzea
- Natur ondarea zaintzea eta hobetzea
- Ekonomia zirkularra

● **[Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Eusko Jaurlaritza](#)**

2016. Kapital naturala eta biodibertsitatea. Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, tokiko organismo autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak.

Diruz lagundu ahalko dira zuzenean biodibertsitatea kontserbatzeko, leheneratzeko edo hobetzeko helburua duten honako ekintza hauek:

Komunitatearentzat edo eskualdearentzat interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko egiten diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak. Kontserbatzeko interes handiena duten edo kontserbazio-egoera okerreanean diren habitatetan jarduteko ekintzak lehenetsiko dira, hala nola erriberako basoetan, bertako basoetan, paduretan eta abarretan jardutekoak.

KONKLUSIOA

Esandako guztiagatik, erabat justifikatuta dago eta gomendagarria da Arrasateko Udalak lursail hau erosi eta ingurumen hobekuntzarako kudeatzeko aukerak lantzen hasia.

Gure ondoren datozenendako eta guretako proiektu brillante bat gauzatzeko aukera paregabea du Arrasateko Udalak eta horretarako behar duen laguntza guztia izango du gure partetik. Anbizioa izan dezagun gai honekin.